

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### Oiongo herrigunea osorik birgaitzeko plan bereziaren 1. interpretazio ebazpena

Oiongo udalbatzak interpretazio ebazpen hau eman du Oiongo herrigunea osorik birgaitzeko plan bereziari buruz (aurrerantzean, Oiongo herrigunearen BEPB): 36.4 artikuluan (“Eraikuntza elementuak”), 2. atalean (“Beteguneak”), C letran (“Kolorea”) aipatzen diren “krema, okrea eta lurrak” termino generikoei dagokienez, erreferentzia hauekin bat datozenak baimentzen dira:

– RAL sistemako honako erreferentzia hauek: 1000, 1001, 1002, 1003, 1004, 1005, 1006, 1007, 1012, 1014, 1017, 1018, 1021, 1023, 1028, 1032, 1033, 1034 eta 1037.

– PANTONE, PMS sistemako honako erreferentzia hauek: 100, 101, 102, 106, 107, 108, 109, 113, 114, 115, 116, 120, 121, 122, 123, 127, 128, 129, 134, 135, 136, 141, 142, 143, 1205, 1215, 1225, 1345, 1355 eta 1365.

Lekuko lagin bat pintatu ondoren honako tonalitate hauek baimendu litezke: RAL 1011, 1015, 1016, 1024 eta 1027. PMS 124, 130, 1035 eta 1375.

Ebazpen hau Oiongo herrigunearen BEPBari erantsiko zaio, eranskin gisa, 1. zenbakiarekin. Oiongo herrigunearen BEPBaren testu bateginaren bertsio osoa eta eguneratua 2018ko azaroaren 14ko erabakiaren bidez onetsi zen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 107.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Eta onespren horren berri eman zen 2018ko azaroaren 19ko ALHAOn, 133. zenbakian, 4209 zenbakiko iragarkiaren bidez.

Oion, 2021eko ekainaren 7a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA CABEZÓN**